

B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

Modaren etikarantz. Erronkak eta aurrerapausoak



UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
UPV/EHU

Aurkezpena

Modak, fenomeno aktibo, heterogeneo eta erlazionala den einean, gizarte, kultura nahiz ekonomiarekin konbergentziak eratzen ditu. Hortaz, etikarekin zerikusia duten auziak planteatzen ditu bere katebegi guztietan: diseinuan, ekoizpenean, merkaturatzean, komunikazioan nahiz kontserbazioan.

Azken urteetan, modaren industriak bere politikak berrikusteari ekin dio, langileen lan baldintzei, ekoizpen prozesuen iraunkortasunari, ingurumenari nahiz animalien eskubideei dagokienez, sektore akademiko eta sozialek modari gero eta arreta handiagoa ematen diotela-eta, modari buruz gero eta analisi sakonagoak egin ohi direla-eta, eta, horrekin batera, kontsumitzaileak gero eta konpromiso handiagoa hartzen ari direla-eta. Era berean, kontzeptualizazio eta adierazpenarekin lotutako moda diseinu bektoreek, moda sistema berak errepikatu ditzaken arazoen inguruko eztabaida bultzatzen ari dira: hala nola sexuagatiko edo sexu joeragatiko, arrazagatiko, gorpuzkeragatiko, klaseagatiko eta adinagatiko diskriminazioa.

Helburuak

- A Modari buruzko gaur egungo ikuspegi eta politika etikoek biltzen dituzten arloak, faktoreak, subjektuak, gaiak eta ekoizpen, merkataritza, ingurumen eta sorkuntza prozesuak nahiz prozesu soziokulturalak testuinguruan kokatzea.
- B Gizarte garaikidearen izaera etikoko zalantzen eta eskarien bidez, modaren industrian, kontsumitzaileengan eta hauen arteko elkarreraginean sortzen ari diren paradigma berriak eta paradigma horiei atxikitako erronka, oztopo eta helburuak aztertzea.
- C Gizarteak eta gobernu erregulazioek eskatzen duten oinarri etikoko eraldaketa gauzatzeari begira, moda inguruko diseinu eta enpresa jardueren aldetik hartzen ari diren neurri zehatzen eta berrikuntzen berri ematea.

Programa

Ikastaroan, ikuspegi orokorretik aztertuko dira gaur egun modak etikarekin garatzen dituen topaketak eta honek gizartearekin eta ingurumenarekin dituen loturak.

Modarekin loturiko esparru akademikoetan itzal handia duten hiru hizlari arituko dira ikastaroan; hain zuzen ere, modaren etikari atxikitako auziak testuinguruan kokatu eta aztertuko dituzte aditu horiek, moda ekoizpen material eta kultural gisa harturik. Era berean, modaren diseinu alderdi kontzeptual-sortzailetik nahiz enpresa alderditik helburu etikoei loturik garatzen ari diren ekintza eta esperientzia zehatzak aurkeztuko ditu ikastaroak, ikuspegi espezializatutik. Arreta berezia emango die gertatzen ari diren berrikuntza eta hobekuntzei, hala modaren balio kateari dagokionez (iraunkortasuna, lan baldintzak, ingurumenaren eta animalien eskubideen errespetua, etab.) nola modak nortasun sozial, politiko eta kulturalen eraikuntzan egiten duen bitartekaritza lan sinbolikoari dagokionez.

Jardunaldi bakarrean egingo den ikastaro honen egitarauak hiru hitzaldi biltzen ditu, eta mahai inguru bat, hiru aditu ospetsuen eskutik –bi nazioarteko mailakoak eta estatu mailakoa bestea–. Oro har, eduki teorikoak landuko dira, eta, horrekin batera, gaiari loturiko gaur egungo kasu eta esperientzia adierazgarrien analisia egingo da.

Uztailak 5

10:00-10:30	ONGIETORRIA ETA DOKUMENTAZIOA BANATZEA
10:30-11:00	IKASTAROAREN AURKEZPENA Aurkezpenean, ikastaroaren helburu eta edukien berri emango da. Parte-hartzaileak: – Miren Vives, Cristóbal Balenciaga Museoaren zuzendaria. – Yon eta Xabier Martinez-Jauregi, Estudio yoxekoak (ikastaroaren zuzendariak). – Mikel Mendarte, Kultxa Kultur programaren zuzendaria. – Laura Chamorro, Donostia Moda klusterraren zuzendaria.
11:00-12:00	HITZALDIA Joanne Entwistle <i>Hacia una ética de la moda: retos y avances.</i> Hitzaldi marko honetan, diseinuaren, ekoizpen material eta sinbolikoaren eta kontsumoaren prozesuetan jarduera etiko eta arduratsua sustatzeko, gaur egun, modak aurrez aurre dituen oztopo eta aukera nagusiak landuko dira, soziologiaren ikuspegitik.
12:30-13:20	HITZALDIA Elena Salcedo Allende <i>El desafío de la sostenibilidad en la industria de la moda.</i> Hitzaldi honetan, modak industria gisa sortzen dituen kalteak izango dira aztergai, baita ildo horretatik modaren industriak bere gain hartu beharreko oinarri etiko eta ekologikoko erronkak ere. Iraunkortasunari dagokionez –eraginkortasunetik hasi eta erregeneraziora– egin diren zenbait hurbilpen landuko dira, hobekuntzak eta berrikuntzak –teknologian, modeloetan, produktuaren bizitza-ziklo osoan aplikatutako sistemetan– egin dituzten hainbat adibide erreal oinarri hartuta.
15:30-16:20	HITZALDIA Sass Brown <i>Innovación en el diseño de moda consciente.</i> Markek eta diseinatzaileek gero eta presio handiagoa dute modaren industriak eragiten duen inpaktu etikoari eta ingurumen inpaktuari erantzuteko. Hitzaldi honetan, moda diseinuko jarduera arduratsu eta kaltegarriak aztertuko dira, modaren sistema, negozioa nola egiten dugun eta nola kontsumitzen dugun zalantzan jartzen ari diren kontzeptuak eta soluzioak kontuan hartuta.
16:30-17:10	BATERATZEA/MAHAI INGURUA Hiru hizlariak parte hartuko dute, eta Estudio YOXeko kideak izango dira moderatzaileak.

Hizlariak



JOANNE ENTWISTLE

Soziologiako doktorea Goldsmith College Universityn. Irakasle, ikertzaile eta idazlea. Moda, gorpuzka, kultura bitartekaritza, ekoizpen estetiko eta generoa dira bere ikerketa jardunaren ardatzak. Esparru akademikoari dagokionez, Londresko Kings Collegeko Sorkuntza eta Kultura Industrien Saileko irakasle atxikia da 2011tik. Sail horretako Hezkuntzako arduradun izendatu dute berriki. Aurrez, eskolak eman ditu London College of Fashion, University of the Arts London eta London Metropolitan University ikastegietan eta Essex-eko Unibertsitateko Soziologia Sailean. Nazioartean, hitzaldiak, ponentziak eta tailerrak egiten ditu; berriena, moda eta gorpuzka ardatz zirela New Yorkeko The Museum at 19ten egindako modaren 19. sinposioan aurkeztutako aniztasun eredu berriak gaiari buruzko ponentzia du. Entwistlek British Economic and Social Research Council (ESRC) kontseiluaren beka bat jaso du, txikizkako britainiar sektoreak moda erosteko duen portaera ikertzeko, eta Indiako emakumeen segurtasunari eta azpiegiturei buruzko ikerketa ere egin du, berrikiago, British Academyren beka bati esker, beste ikertzaile batzuekin lankidetzan. Artikulu eta saiakera akademiko eta interes orokorreko lan ugari ez ezik, honako liburu hauek argitaratu ditu: *The Fashioned Body: fashion, dress and modern social theory* (2015 – lehen argitalpena 2001. Polity Press, Cambridge) eta *The aesthetic economy of fashion: markets and value in clothing and modelling* (2009. Bloomsbury, Oxford). Beste kide batzuekin batera argitaratu ditu: *Body Dressing*, E. Wilsonekin (2001. Bloomsbury, Londres), *Fashioning Models: Image, Text and Industry*, E. Wissingerrekin (2012, Bloomsbury, Londres) eta *The Handbook of Fashion Studies*, S. Black, et alirekin, (Bloomsbury, Londres). Soziologiako doktoregoa eskuratu zuen Goldsmith College Universityn.



ELENA SALCEDO ALLENDE

Iraunkortasuneko eta aldaketaren kudeaketako aholkulari, ikertzaile eta irakaslea da. Enpresen eta erakundeen iraunkortasunaren integrazioan, negozio eredu berrietan eta kontsumo ohituretan espezializatuta dago. Far&Sound eraldaketa zerbitzuen enpresa sortu zuen beste batzuekin batera. 2014az geroztik Inditex taldearen ingurumen iraunkortasuneko kanpo aholkulari gisa dihardu. 2011n, Beco enpresa sortu zuen, beste kide batzuekin batera: modaren industrian iraunkortasunari loturiko ekimenak sortzen eta sustatzen diharduen Espainiako lehen plataforma da. Kataluniako Generalitatearen Projecte Bressol moda enpresen inkubagailuaren zuzendari exekutiboa izan da. Era berean, aholkularitza eskaini die Espainiako eta Kolonbiako hainbat moda etxeri. Irakasle gisa, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Goi Eskolan, Felicidad Ducen eta Elisavan lan egin du, Bartzelonan. 2013az geroztik, Bartzelonako IE3Dn modaren kudeaketa programaren eta moda etiko eta iraunkorraren espezializazio ikastaroaren arduraduna da, eta 2003az geroztik ematen ditu eskolak ikastegi horretan. Ikerketa lanei dagokionez, *Moda ética para un futuro sostenible* (2014. Gustavo Gili argit., Bartzelona) lanaren egilea da, eta *Moda y Empresa* (2004. Granica argit.) lanarena, Mercedes Cardenalekin batera. Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzako lizentzia eta masterra eskuratu zituen ESADEN. Gainera, International Managementeko CEMS masterra egin zuen, Austriako wu Vienna University of Economics and Business-en.



SASS BROWN

Ikertzaile, diseinatzaile, idazle eta hezitzaile gisa, moda etikoaren molde guztietan espezializatuta dago Brown: Slow Design –edo diseinu mantsoa–, eskulangintzaren ondarea, birziklatzea eta berrerrabiltzea, negozio eredu alternatiboak. Dubaiko Institute of Design and Innovation institutuaren sortzaile dekanoa bada ere, gaur egun lan utzialdian dago, eskulangintza global eta garapen iraunkorreko ereduak doktoregoa egiteko, Manchester Metropolitan University-an, hain zuzen ere. Honen aurretik, New Yorkeko FITeko (Fashion Institute of Technology) Arte eta Diseinu Eskolako bitarteko dekanoa ere izan zen. Moda diseinatzaile gisa, Brownnek esperientzia luzea du garapen iraunkorrean. Aholkulari dihardu Danimarkako Sustainia100 soluzio iraunkorren urteko gidarentzat, zeinak nabarmentzen baititu askotariko industria sektoreetan iraunkortasunari loturik egindako aurrerapenak. Era berean, diseinu ikertzaile elkartua da moda konbentzionalean iraunkortasuna txertatzeari buruzko aholkularitza eskaintzen duen MISTRA Future Fashion hezkuntza ikerketako partzuergoan. Mundu mailan, moda iraunkorrari buruz argitaratutako artikuluekin eta emandako hainbat hitzaldiekin batera, diseinu iraunkorreko aholkularia izan da emakumeen kooperatibetan, hezkuntza erakundeetan, gobernu agentzietan eta GKE nahiz enpresa txiki eta ertainetan. Haren argitalpenen artean, nabarmentzekoak dira *Eco Fashion* eta *ReFashioned* liburuak, Laurence King britainiar argitaletxearenak, italieraz eta gaztelaniaz ere argitaratuak. Doktoregoa egin aurretik honako ikasketak burutu zituen: Moda Globaleko Kudeaketa Masterra New Yorkeko FITen eta Moda Disenuko lizentzia Erresuma Batuko Ravensbourne College of Art and Design ikastegian.

INFORMAZIOA

DATA

Uztailak 5.

TOKIA

Cristóbal Balenciaga Museoa, Getaria.

HIZKUNTZA

Gaztelania. Ingeleseko hitzaldietan, aldi bereko itzulpen-zerbitzua egongo da.

PARTE-HARTZAILEAK

Modarekin, artearekin eta gizarte zientziekin loturiko esparru orotako ikasle eta profesionalei nahiz interesdun orori begira antolatutako ikastaroa da.

PARTE-HARTZAILE KOPURUA

46 parte-hartzailerentzako tokia dago. Izen-ematearen hurrenkeraren arabera beteko dira tokiak.

MATRIKULA

50€ (maiatzaren 31ra arte).

65€ (ekainaren 1etik aurrera).

TOKI-KOPURU MUGATUA

IZENA EMAN BEHAR DA HEMEN

www.uik.eus

HARREMANETARAKO

T +34 943 004 777

info@fbalenciaga.com

Antolatzailea



Zuzendaria

ESTUDIOYOX

Kolaboratzaileak



kutxa kultur
moda
kutxa FUNDAZIOA

donostia
san sebastián **UP!**

donostia
moda
MODA SUSTATZEN
IMPULSO A LA MODA
IMPULSE TO FASHION




DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Alkateordetza
Tenencia de Alcaldía

donostiasustapena
fomentosansebastián
DESARROLLO ECONÓMICO DE SAN SEBASTIÁN
DESARROLLANDO SINERGIES ECONÓMICAS
SAN SEBASTIÁN ECONOMIC DEVELOPMENT

B

CRISTÓBAL **BALENCIAGA** MUSEOA

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria - Gipuzkoa - España
T 943 008 840
info@crislobalbalenciagamuseoa.com
www.crislobalbalenciagamuseoa.com



Biarritz — 71km
Bilbao — 81km
Donostia/ San Sebastián — 25km
Iruña-Pamplona — 97km
Vitoria-Gasteiz — 83km

GPS
43° 18'6.92" N
2° 12' 18.77" W



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



OPAIN
GIPUZKOA

